BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Bilbon, 2012ko abenduaren 13a

# Hil egin da Idoia Mendiolagaray, Bizkaiko Batzar Nagusietan EAJren Batzarkide eta Zaldibarreko alkate ohia

Ana Idoia Mendiolagaray Bastida, Euzko Abertzaleak Taldearen Batzarkidea, hil egin da bart, azken urteotan odoleko minbiziari sendotasun handiz eta adoretsu aurre egin deutsan arren. Zaldibarreko Alkate ohia zan Idoia, eta 2007. urtean hasita Batzar Nagusietan Euzko Alderdi Jeltzalearen batzarkide izan da, Durango-Arratiako hauteskunde-barrutiaren partez. Agintaldi honetan, Batzar Nagusietako Alkartezintasunetarako Batzordeburu zan, baita Gizarte Ekintzako eta Herri Lan eta Garraioetako Batzordeetako kide be.

Batzar Nagusiokazko hartu-emona 2007. urtean hasi eban, VIII. agintaldiagaz batera. Batzar Nagusietako lanean, haisera hasieratik, batzordekide izan zan Batzorde batzutan (Alkartezintesunekoan eta Lan eta Ekonomi Sustapenekoan), eta Zaldibarko Alkate ardurak eta Batzar Nagusietakoak buztartu beharra izan eban ia urte bitan.

Jaio Berrizen jaio zan, 49 urte dirala, baina txiki-txikitatik bizi izan zan Zaldibarren. Erizain laguntzaile eta alaba biren ama genduan Idoia, 2007-2011 agintadian sartu zan Udal gobernura, euskerako zinegotzi zereginetan, eta Alkate bihurtu zan 2009. urtearen hasieran, artean alkate zan Igor Barrenetxea-Arando Bizkailurreko zuzendari izendatu ebenean.

## KONPROMETIDUA, SENDOTASUN HANDIKOA ETA BURRUKALARI SAIATSUA

Bizkaiko Batzar Nagusietan lagun izan dabenek esaten dabe andra sendotasun handikoa zala, herriagaz konprometidua eta burrukalari benetan saiatsua. Idoiak Batzar Nagusietan egindako lana goraldu egiten dabe politika-lagun zein aurkariek.

Ana Madariaga Batzar Nagusietako Lehendakariak, Idoia gogotara ekartean, “hagazko hartu-emon estua” izan dauela dino. Madariagak Idoiaren “izaera sendoa eta adorea” eta “lanerako eukan grina” gogoratu ditu, “lagunen lagun izaten” jakin dauela. Gaixotasunari aurre egiten “une oso latzak” izan dituela gogoratzen dau Ana Madariagak, baina halan eta guzti be “gaixotasunari eta sufrimentu handiari aurre eginez, itzelezko adoreagaz”. “Ez dau inoiz erakutsi benetan jasan behar izan dauena” gogoratu dau Madariagak.

Euzko Abertzaleak Taldeko Taldeburuak, Unai Rementeriak, goraldu egin dau bere herriagaz, Bizkaiagaz eta Euskadigaz eukan konpromisoa. “50 urte atzera egiten

badogu, Idoia orduko emakume abertzaleen modukoa izango litzateke, gure Euskadi honen oinarriak eregiten lan etenbakoa egin eben emakumeen moduan koprometidua eta herria maite ebana. Idoiak konpromiso eta lan maila berbera euki eban bere herriagaz. Garai bateko oinarriak, bere Zaldibarren eta Bizkaian, Batzar Nagusiotan, sendotzen lagundu dau bere lanagaz" gogoratu dau Rementeriak.

Bere aurkari politikoen begietara pertsona xumea, apala eta aberasgarria izan da. Josu Montalbán, aurreko agintaldian PSEren Batzarkide izandakoa, laguna eban eta esan dau politikoen artean berak ezagutu dauen sektarismotik eta handikeriatik urrunen egoanetarikoa zala Idoia. "Beti egoan indarrak batzeko prest". "Eukan gauzarik aitagarrienetakoa umiltasuna zan, egiten ebana egin beharrekotzat hartuta, aurkari politikoa gitxiesteko gaur egun dagoan interesa alde batera itxita", esan dau Montalbánek, eta ganeratu dau sakon-sakonean sentidu dauela Idoiaren heriotza, "emakume apala, naturala eta zintzoa, gizarte gaietarako ikuskera berezia eukana" zan-eta.

BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

**NOTA DE PRENSA**

# Fallece Idoia Mendiolagaray, apoderada del PNV en las Juntas Generales de Bizkaia y exalcaldesa de Zaldibar

Bilbao, a 13 de diciembre de 2012.

Ana Idoia Mendiolagaray Bastida, juntera del grupo nacionalista, ha fallecido esta pasada noche después de sufrir una leucemia contra la que, en los últimos años, ha luchado con gran entereza. La exalcaldesa de Zaldibar era apoderada del Partido Nacionalista Vasco (PNV) por la Circunscripción de Durango Arratia desde el año 2007. En la presente legislatura, Mendiolagaray presidía la comisión de Incompatibilidades de las Juntas Generales de Bizkaia y era vocal en las comisiones de Acción Social, y Obras Públicas y Transporte.

Su relación con las Juntas Generales comenzó en junio de 2007 con el inicio del VIII Mandato del Parlamento de Bizkaia. Ocupó desde el principio asiento como vocal en varias comisiones (Incompatibilidades, y Promoción Económica y Empleo), al mismo tiempo que compaginó estas responsabilidades con la alcaldía de Zaldibar durante casi dos años.

Aunque nació en Berriz hace 49 años (iba a cumplir los 50 el próximo miércoles), residió en Zaldibar desde pequeña. Esta auxiliar de enfermería, casada y madre de dos hijas, llegó en la legislatura 2007-2011 al gobierno municipal, donde se encargaba del área de euskera y pasó a ser alcaldesa de Zaldibar a principios de 2009, tras la renuncia del anterior regidor, Igor Barrenetxea-Arando, al ser nombrado éste director de Bizkailur.

## COMPROMETIDA, LUCHADORA Y MUJER DE ENORME ENTEREZA

Quienes han compartido su tiempo en los últimos años en la cámara vizcaína, la definen como una mujer comprometida con su tierra, de enorme entereza y luchadora hasta el final. Su paso por las Juntas Generales no ha pasado desapercibido para sus compañeros y adversarios políticos.

La Presidenta de las Juntas Generales, Ana Madariaga, ha rememorado que ha tenido una “estrecha relación con Idoia”. Y ha destacado su “carácter fuerte y su valentía”. “Muy trabajadora” , ha recordado “lo compañera que ha sido siempre". Durante el proceso de lucha contra la enfermedad, Madariaga ha manifestado que ha pasado momentos “muy duros”. "Pero, aun así, hasta esta última fase de su enfermedad, y pese al sufrimiento, ha participado en todos los Plenos y en todas las Comisiones con una

enorme entereza". "Nunca daba muestras de lo que realmente estaba pasando", ha recordado.

Por su parte, el portavoz del grupo nacionalista en las Juntas, Unai Rementeria, ha ensalzado el compromiso con su pueblo, Bizkaia y Euskadi. "Si nos retrotraemos 50 años, Idoia sería una de aquellas mujeres abertzales, comprometidas, amantes de su tierra donde se construyeron los cimientos de esta tierra, Euskadi, que hoy conocemos. Idoia mantenía ese mismo nivel de compromiso y dedicación a su pueblo. Cimientos de ayer que ella ayudó a consolidar en su pueblo Zaldibar y en Bizkaia, en estas Juntas Generales", ha recordado.

Entre sus adversarios políticos, destacaba por ser sencilla, humilde y constructiva. Su amigo declarado Josu Montalbán, apoderado del PSE en la legislatura pasada, considera que Idoia era una de las personas más alejadas de sectarismos y altanería que él haya conocido en la clase política. "Estaba abierta siempre a construir". "Una de sus grandezas era la sencillez y entendía lo que hacía con afán constructivo, sin ese interés actual de desvalorizar al adversario político", ha dicho. Montalbán ha lamentado "profundamente" la pérdida de una mujer "humilde, natural y honrada, con una especial visión por los temas sociales".

Goian bego.